

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

1
positibo berri
2.265
positibo guztira*
*Hernanin 61 Astigarragan 21

1.580
hildako
18
UCIn, EAEn

NAFARROAN

1
positibo berri
5.336
positibo guztira
Sendatuak EAEn: 17.366; Naf: 7.258

Auzoz auzo eta plazaz plaza eskainiko du San Joanetako preludioa etzi, Musika Bandak

Larunbat iluntzean joko dute, Hernaniko hainbat tokitan. Eta ondoren, ekainaren 23an eta 24an ere aterako dira kalera, jaietako egunak behar luketenak alaitzera. Auzoz auzo eskainiko dituzte, emanaldi horiek ere.

HERNANI MUSIKA BANDA

Eten egin zuen Hernaniko Musika Bandaren egunerokoa, martxoan, COVID-19aren aurrean ezarritako osasun alarma egoerak: ez entsaio eta ez kontzertu. Baina ez dira geldirik egon ordutik, eta beste hainbatek bezala, sare sozialen bitartez saiatu dira iristen herritarrengana, Musika Bandakoak ere.

Horrela, esaterako, «hernaniarrontzat hain kuttuna den Mendirik mendi doinuak» zabaldu zuten bideo bidez, martxoaren 18an, konfinamendua hasi eta gutxira. Bertan, Jon Ansorena, Iñaki Eguren eta Haritz Ezeiza txistularien laguntza izan zuten Musika Bandako kideek.

Bigarren bideo bat ere zabaldu zuten apirilaren 11n, Ainara Ortega abeslariaren laguntzaz, *Maitia nun zira* abestiaren zati bat grabatuta. «Bi bideo horiek arrakasta haundia izan zuten, eta asko zabaldu ziren jendarteetan. Baina musikariak eta entzuleak zuzenekoaren zain zeuden, horretara baitaude ohituta herriko bandak», azaldu dute.

Kaleko aurreneko emanaldia, auzoz auzoko Preludioa

Joan den ostegunean ekin zien berriro entsaioei, Musika Bandak, horiek egokituta beharrezko segurtasun neurriak bermatzera. «Bi txandatan egin ditugu entsaioak: perkusioa eta haize-metala batetik, eta haize-egurrezko tresnak bestetik. Laburragoak izan dira entsaioak, baina modu presentzialean elkartzen garen aurreneko aldian denez, etekin haundia atera ge-

nion elkarrekin jotzeari».

Aurreneko emanaldietara egingo dute orain. Eta estreinakoa, oso berezia izango da: etzi, larunbatetarekin, San Joanetako Preludioa eskainiko dute auzoz auzo eta plazaz plaza. Arratsaldeko 19:00etan hasita, joko dute Plazan, Plaza Berrin, Zinkoenean, Oblatosen, Karabelen, Zikuñagan, Portun eta Elizatxon. «Toki bakoitzean geldirik joko dugu. Izan ere, kalejiran joanda zaila da gutxieneko distantziak mantentzea, musikarien artean».

Kontzertu txiki horietan, es-tilo ezberdinetako doinuak joko dituzte: *Deba*, *Irureta* eta *Pras-kuarena* kalejirak, eta kontzertuko zenbait piezaren zatiak; *Santana a Portrait*, Deep Purple-ren *Smoke on the water*, eta Bizen *L'arlesienne*, hain justu.

Kalejira eta kontzertuak, San Joanetako egunetan ere
Preludioak ez ditu San Joanak bere horretan iragarriko, aurtan ez baitira ohiko San Joan jaiak izango, ekintza batzuk antolatuko diren arren. Baina jaiei dagozkien egunetan ere, kalera aterako da Musika Banda, eta kalejira zein kontzertuak eskainiko ditu, herrian barrena.

Horrela, ekainaren 23an, San Joan Zortzikoa joko du, arratsaldeko 20:00etatik aurrera, herriko hainbat txokotan: Plazan eta Plaza Berrin, Zinkoenean, Txirrita kalean, Atsegindegin, Txantxillan eta Lizeagan.

Eta ekainaren 24an, saio bi-koitza egingo dute. Aurrena, goizeko 09:00etan, diana joko dute Etxeberrin, Sagastialden, An-



Distantziak mantenduz egin dituzte entsaioak Musika Bandako kideek, joan den ostegunean hasita, Milagrosan.

tziolan, atletismo pistaren inguruetan eta Karmelo Labakan. Eta ondoren, kontzertua eskainiko dute, eguerdiko 12:30etatik aurrera, beste lau gune ezberdinetan: Sorgintxulo auzoan, Latsunben, Urbieta kalean, eta Biteri kultur etxean.

«Preludioa bezala, tokian geldirik joko dugu horietan ere. Ohiko ibilbidea aldatu dugu, Musika Bandaren doinuak ahalik eta auzo eta herritar gehienengana iritsi daitezen», diote. Festarik izango ez den egunetan, etxez etxe gogoraraziko dute, San Joanen egunak direla. **K**

HERNANIKO MUSIKA BANDAREN EMANALDIK

EKAINAK 13 PRELUDIOA

19:00, Plazan, Plaza Berrin eta Zinkoenean
19:25, Oblatosen
19:50, Karabel auzoan
20:25, Zikuñaga auzoan
21:00, Portu auzoan
21:25, Elizatxon

EKAINAK 23 SAN JOAN ZORTZIKOA

20:00, Plazan eta Plaza Berrin
20:15, Zinkoenean

20:30, Txirrita kalean
20:45, Atsegindegin
21:00, Txantxilla auzoan
21:20, Lizeaga auzoan

EKAINAK 24 DIANA

09:00, Etxeberrin, Sagastialden, Antziolan, atletismo pistaren inguruetan, eta Karmelo Labakan

EKAINAK 24 KONTZERTUA

12:30, Sorgintxulo auzoan
13:00, Latsunben
13:30, Urbieta kalean
14:00, Biteri kultur etxean

Oinarrizko Lanbide Heziketa

MARTUTENE Lanbide Eskola

ELEKTRIZITATEA ELEKTRONIKA

INFORMATIKA KOMUNIKAZIOAK

AURREMATRIKULA
2020.06.01 - 2020.06.19

943 46 01 45 / 610 787 001
info@fpmartutene.org
fpmartutene.org

Zorionak Unai!

3 urte

Familiaren partez hiru-muxu haundi

Koldo eta Ana

Astelehenetik ostiralera menua, bertan eta eramateko.

Arratsaldeetan terraza 20:30ak arte.

Larunbata eguerdi eta gaua irekita. Txotxa ere bai.

Enkarguz

Oialume bidea 57 - 20115 Astigarraga - 943 333 333

EGURALDIA

GAUR



Giro nahiko lasaia izango dugu goizean, baina euri pixka bat egin dezake, lainoak ugaritzearekin batera. Arratsaldean, ordea, euri gehiago egingo du, haizea hegoaldeetik ipar-mendebaldera aldatzea-
rekin batera. **Min.12° / Max.18°**

BIHAR



Hegoaldeko haizea izango da protagonista bihar. Giro nahasiarekin jarraituko dugu, eta baliteke goizaldean eta iluntzean zaparrada batzuk botatzea. Hala ere, hobera egingo du, eta ostarte ederrak zabalduko dira, momentu askotan. **Min.10° / Max.21°**

ARGITARATZAILEA

DOBERA EUSKARA ELKARTEA

LAGUNTZAILEAK



Hernaniko Udala



Argaitzako Udala



Auzo Urtia



GOIZUETAKO UDALA



ARANOKO UDALA

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTZAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** **Gauetz:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



EUSKO LEGEBILTZARIA
GOBIERNO VASCO



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

Antena egokitzeke lanak egin zituzten Pagoagan, astelehenean

Horren eraginez, moldaketak egin beharko dituzte inguruko bizilagunek; kasu gehienetan, nahikoa izango da antena bersintonizatzea.

EREÑOTZU AUZO UDALA

Pagoagako antena egokitu zuen astelehenean Itelazpik, Eusko Jaurlaritzaren sozietate publikoak, Ereñotzuko Auzo Udalak jakinarazi duenez. Eta egokitza-pen horren ondorioz, moldaketak egin beharko dituzte inguruko bizilagunek.

Auzo Udalak azaldu duenez, «kasu gehienetan, guztietan ez bada, nahikoa izango da telebista bersintonizatzea, horrela gertatzen baita etxe bakarren kasuan. Hiru etxe edo gehiagoko jabeen erkidegoen kasuan, antenista edo enpresa instalatzaile baimendu batek egokitu beharko du komunitateko antena kolektiboa, ondoren telebistak bersintonizatzeke».

Itelazpiren ardura da bigarren dibidendu digitala egitea, eta aldi berean, arduratzen da

estatu-estaldurako emisioak egokitzeaz, biztanleria dentsitate txikiko eta orografia konplexuko eremuetan. Ardura horren barruan dago, hain justu, asteleheneko egokitzapena.

Telebista kateak, kanal ezberdinetan orain

Esan bezala, antena egokitzeak telebista bersintonizatu behar izatea dakar; eta orain, kanal ezberdinetan ikusi ahal izango dituzte telebista kateak, inguruko bizilagunek.

Horrela, ETBren kate guztiak (ETB1, ETB2, ETB3, ETB4, ETB1 HD eta ETB2 HD), 24 kanalean aurkitu ahal izango dituzte aurrerantzean, 46garrenean beharrean.TVERen kate batzuk (La 1, La 2, 24 horas, Clan, La 1 HD eta La 2 HD), 34an egongo dira orain, 56an beharrean. Aldiz, Teledeporte, Teledeporte HD, Clan HD

eta DKiss, 36ra mugitu dituzte, orain arte zeukaten 26tik.

Etxe bakarretan, nahikoa izango da telebista berriro sintonizatzea; eta hiru etxe edo gehiagoko erkidegoetan, antenista edo enpresa instalatzaile batek egokitu beharko du.

25ean topatuko dituzte orain, beste bost telebista kate: Discovery Chanel, Paramount, Network, Discovery Max eta Gol. 26an egongo dira (37an beharrean) ondoko kateak: Antena 3, Neox, Nova, Antena 3 HD, La Sexta eta La Sexta HD. Eta azkenik, 37ra mugitu dituzte, orain arte 52an zeudenak: Telecinco, FDF, Telecinco HD, Cuatro, Divinity eta Cuatro HD. **K**



Mota guztietako hondakinak utzi zituen. Argazkia: Nafarroako Foruzaingoa

Areson hondakinak modu ilegalean botatzeagatik salatuta, hernaniar bat

Hondakin kudeatzaile itxurak eginda, hondakinak bota zituen Eluseder poligonoko zonalde batera, baimenik gabe.

HERNANI SALAKETA

Hernaniar bat salatu du Nafarroako Foruzaingoa, Aresoko industriagune batean hondakinak modu ilegalean botatzeagatik. Joan den larunbatean gertatu zen hori, eta abixua jasota,

bertara azaldu zen Altsasuko patrulla bat. Ikerketa lanak egin ondoren, jakin zuten hernaniar bat zela, bertara hondakinak bota zituen.

Azaldu dutenez, hondakinen kudeatzaile baten itxurak egin zituen herritarrak, eta Aresoko Eluseder poligonoan, hondakinak bota zituen, horretarako baimenduta ez dagoen zonalde batean. Horren aurrean, salaketa jarri diote Ingurumenaren Babeserako Brigadako foruzainek, Hondakinen eta Zoru Kutsatuen Legearen arabera. **K**

Kartera 'smartphone'an nola eduki, gaur

URUMEA KZ GUNEA

Beste hitzaldi bat antolatu du KZguneak gaurko, internet bidez. Youtuben eskainiko dute, KZguneaTIC kanalean, goizeko 11:00etatik 12:00etara gaztelaniaz. Eta bertan erakutsiko dute, nola eraman daitekeen kartera edo diru-zorroa mugikorrean, bertatik ordaintzeko: *Zure diru-zorroa smartphonean.*

Piragua ikastarorako, azkeneko eguna

HERNANI UDALA

Piragua ikastaroa antolatu du datorren asterako, Hernaniko Udalak, 12 eta 17 urte bitarteko nerabeei zuzenduta. Arratsaldean izango dira saioak, 16:00etatik 17:30etara, datorren astelehenetik ostiralerara. Doakoak dira, baina izena eman behar da, 10 euroko fiantza jarrita; eta gaur da azkeneko eguna, online: *labur.eus/TbZH8*.

Udal baratzetan, izenematea gaur arte

HERNANI UDALA

Udal baratzen erabiltzaile izateko prozesua jarri zuen martxan berriro Hernaniko Udalak, COVID-19aren eraginez hasierako epeak bertan behera geratu zirelako. Eta gaur arte dago epea, horretarako eskaerak aurkezteko. Guztira 72 partzela izango dira, 30 metro karratukoak, Antziolan eta Sagastialden. Udaletxeko Herritarren Harrera Zerbitzuan aurkeztu behar dira eskaerak.

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**



Plazan jarri zituzten arropa eta konplementuen postu batzuk, joan den asteke ferian.

Urbietan kalera bueltan gaur, feria

Bertan jarriko dituzte berriro, joan den ostegunean Zinkoenara eta Plazara mugitu zituzten postuak. Landareenak, Latsunbeberriko plazan.

HERNANI FERIA

Herriko toki ezberdinetan banatu zituzten ferriako postuak, aurreko ostegunean, segurtasun neurriak tarteko. Baina gaurkoan, Urbietan kalera bueltatuko dira berriro, joan den astean Plazara eta Zinkoenara mugitu zi-

tuztenak. Hori horrela, Urbietan egongo dira elikagaien postuak, eta arropa eta konplementuenak. Landare saltzaileen hiru postuak, berriz, Latsunbeberriko plazan mantenduko dituzte.

Aurrekoetan bezala, trafikoari itxita mantenduko dute Urbietan kalea, feriak irauten

duen bitartean. Anbulatortik Marielutseko sarrerara bitartean egongo da moztuta. Ezkerreko aldean jarriko dituzte postuak, eta oinezkoentzako eremua izango da kale osoa. Hori horrela, bertan ezingo da aparkatutako ibilgailurik egon, goizeko 08:00etatik aurrera. **K**